

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure jarduera nagusia **giza talde zehatz baten beharrak asetzea** da, 3. adineko pertsonen beharrak, hain zuzen ere, baita bezeroak ondo ezagutzea, haiek izango baitira gure proiektua existitzearen arrazoia.

Beste ataletan aipatu dugun bezala, **jarduera anitzak** egingo ditugu faktore askoren arabera: eguraldiaren arabera, bezeroen gustuen arabera, aurrekontuaren arabera, baliabideen arabera,... Ez dugu plangintza zehatz bat izango, oso **jarrera malgua** izango dugu.

Gure ekintzek **hiru ezaugarri nagusi** izango dituzte. Alde batetik, guk proposatuko ditugun **ekintza guztiak egokituak** egongo dira adin eta egoera ezberdinetarako, inor baztertuta ez sentiarazteko. Beste alde batetik, **elkarlana sustatzen** saiatuko gara, bai hirugarren adinekoen artean eta baita gazteen artean ere. Amaitzeko, ekintza gehienek **naturarekin** harreman zuzena izango dute, **jasangarritasunaren printzipioa** jarraituz eta sustatuz.

Hauetako hasiera batean proposatuko ditugun jarduerak, baina enpresa hazten doan heinean eta gure bezeroen **beharrak ezagutzen** joan ahala, jarduerak gehituko ditugu haien nahietara eta beharizanetara egiteko.

Gitarra klaseak

Gure bezeroek gitarra jotzen ikas dezaten, hileroko 8 klase eskainiko ditugu, astero 2 klase izanda, eta horretarako, beste atal batean aipatu dugun bezala, **“TRASTE gitarra gela”**-rekin aliatuko gara eta eurek emango dizkiete klaseak bezeroei. Klase hauek **taldean** emango dira.



Ur-kirolak (paddle, surf, kayak)




Bezeroek naturarekin konektatzeko eta itsasoaz gozatzeko jarduera ezberdinak antolatuko ditugu bertan, itsasoa **sendagarria** dela uste dugulako. Antolatuko ditugun itsas jarduera horiek **egokituta** egongo dira mugikortasun murriztua duten haientzat. Ekintza hauekin oso denbora polita eta aberasgarria igaroko dute. Hori antolatzeko **“CABO BILLANO surf eskola”**-rekin eta **“GOAZEN UP”** elkartearekin aliatuko gara.

Bidaiak itsasontziz (arrantza egiteko, zetazeoak ikusteko...)

Itsasontziko irteerak ere egingo ditugu, eta horretarako **“URIBE KOSTA SEA TOURS”**-ren kolaborazioa izango dugu. Irteerak ez dira beti berdinak izango, aukera ezberdinak eskainiko ditugu: **zetazeoak** ikustera joan, kirol-**arrantza** praktikatzea, edota besterik gabe **paseotxo** bat ematea. Uste dugu jarduera horiek oso aberasgarriak izan ahal direla 3. adinekoek gazteei itsasoan izan dituzten esperientziak azaltzeko.



Itsas garbiketak




Ekintza hau **“GOAZEN UP”** elkartearekin batera egingo dugu, askotan **plastiko** eta mikroplastikoen **bilketak** antolatzen dituzte Plentziako itsasadarrean eta uste dugu jarduera oso ona izan daitekeela bai gazteak eta baita helduak ere gure planeta **zaintzearen** beharraz ohartzeko. Jarduera hau modu ezberdinetan egin daiteke, bai paddlez, bai itsasontziz eta baita oinez ere. Garrantzitsuena ahalik eta **zabor** gehien **biltzea** da.

Dantza klaseak eta erakusketak

Dantza gorputza **aktibatzeko** modu bikaina dela uste dugu, horregatik dantza estilo ezberdinetako klaseak eskainiko ditugu. Aldi berean, gure proiektuan parte hartzen duten dantzari gazteek **ekitaldiak** eskainiko dizkigute, emanaldi horien bitartez harremanak indar daitezzen. Jarduera hau aurrera eramateko, **“ARIMA”** dantza eskolaren lankidetzak izango dugu.



Esperientzia gastronomikoak



Gastronomiarekin lotutako jarduera oso bitxiak eskainiko dizkiegu gure bezeroei, zeinetan jatetxe baten funtzionamendua ezagutzeko aukera aurkeztuko diegu, lehengaiak iristen den unetik zerbitzatzen den unera arte. Gainera, **sukaldeak** nola **funtzionatzen** duen ezagutu ondoren, jatetxeko menua dastatu ahal izango dute. Ekintza entretenigarri hau, **“BEGOTXU”** Armintzako jatetxe batekin antolatuko dugu.

Bidaiak

Asko motibatzen gaituzten jarduerak bidaiak dira askoren gustukoak direla uste baitugu eta etorkizunean gogoratzeko **bizipen polita** izan daitezkeelako. Hiruhilero bidaiak antolatzeko ideia dugu, eguraldiaren arabera leku ezberdinetara joanez, adibidez: Benidorm, Malaga, Errioxa,... Bidai hauek antolatzeko **“ECUADOR bidaiak”** enpresaren laguntza izango dugu.

